


ttipi ttapa

450



Juan Esteban Ceballos
eta bere asmakizuna **03**

Ceballos leitzarrak eskuak egonean berotzeko makina sortu du pilotarientzat. Intentsitate eta abiadura ezberdineko kolpeez gain, masajeak ere ematen ditu.



Mikel Goñirekin Aspera
egin duen itzuleraz **36**

Mikel Goñi oronoztarra Aspe enpresara itzuli da. Dagoeneko hasia da partidak jokatzeko, baina guri Aspera itzultzeak beretzat zer erran nahi duen azaldu digu.

2007ko uztailaren 12a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN

04

Euskal Herriko 7 toki telebistetan emitituko da, 17 kapitulutan banatua



ORDOKI

altzariak



ekainaren 21etik irailaren 21era
larunbat arratsaldetan itxita

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



a u t o e s k o l a
OLITEe**LKAR**



- ISO kalitatearen zigilua lortzen duen Nafarroako lehenengo autoeskola.
- Kamioiaren gida baimena ateratzeko ikastaro subentzionatuak 2. sei hilabetekoan.



Ciudad del transporte • Tfnoa: 948 533 535 • IRUÑA
Saskaitz Plaza • Tfnoa: 948 580 077 • ELIZONDO

DATUAK...

- Pilotari onen sorterrria izateaz gain, pilota munduko asmatzaile onen herria ere bada Leitza. Horren lekuko, Juan Esteban Ceballosen asmakizun berria: eskuak egonean berotzeko makina.
- Makina oraindik hagitz ezaguna ez bada ere, patentatu egin du, eta pilota munduan zabaltzeko asmoa du.
- Intentsitate eta abiadura ezberdineko kolpeak ematen ditu eskuetan, baina, horrez gain, masajeak emateko ere balio du.



Juan Esteban CEBALLOS *Eskuak egonean berotzeko makinaren sortzailea*

ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

«Intentsitate eta abiadura ezberdineko kolpeak emanez berotzen du eskua»

Gurutze PIKABEA

Nolatan otu zitzaizun halako makina bat egitea?

Pilota partida bat ikusi nahi nuen telebistan, baina ordu berean bertze konpromiso bat ere banuen lagun batekin. Pilotariak beroketak egiten hasi ziren, baina nik partida ahalik eta abudoen hastea nahi nuen. «Zergatik ez ote dira etxetik eskuak berotuak ateratzen?» pentsatu nuen, eta horrelaxe piztu zitzaidan bonbila, eskuak berotzeko zerbait sortu behar nuela bururatu zitzaidan. Asmakizuna burdinezko kaxa bat da, barrenean mekanismo batzuekin, elektronikoa bat eta mekanikoa bestea.

Zenbat denbora pasatu behar izan duzu orain ikus dezakegun makina hau egiteko?

Denbora dezente pasatu dut, baina tarte horretan ez naiz horretara bakarrik dedikatu. Arazo haundiena osagarriak lortzerakoan izan nuen, motorra berezia da eta plaka elektronikoa... Motorra, adibidez, Madrildik ekarri behar izan nuen. Kanpoko kutxa, berriz, enpresa bati eskatu nion egiteko. Eta dena berri berritik egin

«Pilotaria lesionatua dagoenean eta frontoira joan ezin duenean, eskua beraztu egiten da, eta horrelakoetan, kailuak mantentzeko balio du».

behar denez, atalak egiten ere denbora asko pasatzen da. Hasieran bes-telako saiakera bat egin nuen, nahiko baldarra, baina orain hobetu egin dut.

Nola erabiltzen da?

Ardatz bat du eta hura mugitu egiten da, pilota bat du puntean eta gora eta beheko mugimendua egiten du. Intentsitatea eta abiadura kontrolatzeko aukera ere ematen du. Indar edo abiadura tikiagoarekin edo haundia goarekin eman diezaioke eskuari kolpea. Ordubetean gehienez 7.000 kolpe eman ditzake. Eskuak berotzeko balio izateaz gain, kailuak egin edo mantentzeko ere balio du. Pilotaria lesionatua dagoenean eta frontoira joan ezin duenean, adibidez, eskua beraztu egiten da, eta horrelakoetarako, eskua gogor mantentzeko balio du, kailua ongi mantentzeko. Gaine-

ra, frontoian baino gehiago eginen luke. Izan ere, partida batean, asko jota 200 kolpe ematen ditu pilotariak. Makina honek, berriz, ordubetean 7.000 eman ditzake. Intentsitatea jaitziz eta suabe-suabe jarritz, masajeak emateko ere balio du.

Nolako harrera izan du pilotarien artean?

Oraindik oso gauza berria da, eta orain hasi naiz gauzak mugitzen. Bergarekin egon nintzen, eta berak deitu beharra dit pilotarien aurrean asmakizunaren aurkezpen bat egiteko. Leitzaiko pilotariak ere ikusi dute dagoeneko, eta gustatu zaie, baina oraindik asko dago egiteko. Hasteko, patentatu egin dut asmakizuna, beste inork asmakizun hau berea egin ez dezan.

Etorkizunera begira baduzu bertze egitasmorik buruan?

Bai beti izaten da zerbait buruan. Halere, lehendabizi honekin bukatu behar dut, eta gero ikusiko da. Badut pilota munduarekin zerikusia duen proiektu bat buruan, baina egiten dudanean orduan izanen duzue horren berri.



ARGAZKIAK: GOIZALDE URDANPILLETA ETA EDURNE ZUBIETA

Argazkia Winnemucako euskal bestan ateratakoa da, eta bertzeak bertze, Joxe Miguel Rekondo lesakarra, Agustin eta Fidel Mitxelena aranztarrak, Miguel Inda almandoztarra eta Pedro M^º Eizagirre sunbildarra ageri dira.

Kalifornia eta Nevadako euskaldunekin egon berri da Ttipi-Ttapa telebista

GRABATU DIREN 17 PROGRAMAK URRITIK AITZINERA EMITITUKO DIRA

Iragan mendeetako emigrazioak berebiziko eragina ekarri du gure herrietako familia ugarirentzat. Joandako gehientsuenak urte batzuk han pasatu ondotik Euskal Herrira itzuli ziren. Bertze batzuk, ordea, hantxe egiten dute bizia gaur egun ere. “Euskal artzainak Ameriketean” egitasmoarekin, Ttipi-Ttapa Fundazioak gizatalde honi buruzko informazioa jaso, digitalizatu eta hedatu nahi du. Horretarako, Ttipi-Ttapa Telebistako 2 lankide egon berri dira hiru astez Kalifornian eta Nevadan 17 programa grabatzeko. Orain, han grabatutako erreportajeen post-produkzioa eta edizioa egin ondotik, Euskal Herriko 7 herri telebistetan emitituko da “Euskal artzainak Ameriketean” izeneko erreportaje-saila. Zehazki Bizkaian Oizmendi Telebistan, Gipuzkoan Goiena Telebista, Goierri Telebista, 28 Kanala (Tolosaldea) eta Zarautz Telebistan, eta Nafarroan Xaloe eta Ttipi-Ttapa Telebistetan. Azkenik, Euskal Etxeetara bidaltzeko eta, orohar, interesatuak egon litezken pertsona ororentzat, DVDak ere editatuko dira .

ttipi-ttapa

Ibilbideari hasiera emateko, Bakersfieldeko (Kalifornia) euskal bestan egon ziren. Maiatzaren 27an izan zen hori. Milla lagun ingururen topaleku bihurtu zen *Kern Count Basque Cluba*. Gehienak baztandarrak, baina baita inguruko bertze herrietatik joandakoak ere. Desfilearen aitzineko aldean AEBetako bandera eta ikurrina. Horietako bat Pako Iturriria lekaroztarraren eskuetan. Gibeletik, klika. Inguruetan dantza, abesti eta doinu euskaldunik ez zen falta.

Bakersfieldetik Fresno, San Frantzisko, South San Frantzisko... eta Petalumara, eta hor, Euskal Etxeak antolatutako bertze besta baten lekuko izan ziren. Artzain joandako jendea aunitzeekin egoteko aukera izan zuten Petaluman, eta euskal doinu eta dantzek ez zuten hutsik egin. San Frantziskoko Euskal Etxearen 25. urteurrenaren harira egindako besta izan zen Petalumakoa.



Carlos Iribarren doneztebarra, Izar eta Maite bere alabekin. Gaur egun Boisen bizi da Carlos.



Beintza-Labaiengo Femin Urroz Fresnoko Basque Hoteleko nagusia da. 1966an joan zen harat artzain, eta duela 32 urte erosi zuen hotela lagun batekin erdi bana. Orain 11 urte, laguna hil eta bera bakarrik gelditu da.



Bi baztandar ezkerrean (Aniz eta Elizondokoak), eta bi sunbildar eskuinean, tartean Edurne gure lankidea. Eskuinean, berriz, Goizalde Urdanpilleta lankidea Elbeteko Joxe Torresekin.



South San Frantziskon, AEBetako Euskal Etxeen arteko mus txapelketaren lekuko izan ziren. Eta irabazleen artean, sunbildar bat.

Eta Kaliforniatik Nevadara: Reno, Carson City eta Winnemucca. Bestarik haundiena Winnemucca-koa izan zuten. NABO erakundeak edo Euskal Etxeen konfederazioak bere urteroko biltzarra zuten Winnemuccan. «Istoria aunitz dira, bizi-pen aunitz eta den-denak agertzea kasik ezinezkoa da –diote Goizalde eta Edurnek–. Zenbatzen has-tea ezinezkoa gertatuko litzaiguke, baina bihotza bete zaigu. Baita berareiei ere».

Oso tara egin diren 16 ordu baino gehiagoko grabaketekin, urritik aitzinera 17 kapituluko erreportaje bilduma emitituko da, Ttipi-Ttapan eta bertze 6 tokiko telebistetan.



Mertxe Llona zornotzarra eta Pedro M^a Etxenike sunbildarra senar-emazteak, Sindy eta eta Bautista Mindegia donamariako senar-emazteak, Elizabeth Eizagirre Mertxe eta Pedoren alaba eta Edurne Zubieta telebistako lankidea. Beheko argazkia San Frantziskon ateratakoa da, mus txapelketan.



Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Iratzoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	32 €
Espainia	32 €
Sara (edantegia-okindegia)	40 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika	110 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	26 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jas du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jas du

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Maitane, Aresoko

'kirolariari'

«Guztiok pozik joaten gara frontoira gure pilotariak animatzera eta tanto onak txalo zaparradaz ospatzera». Horrelaxe hasten duzu Maitane ttipi-ttapako karta. Aizu Maitane, «zuen» pilotariak animatzeak aurkaria iraintzea al dakar derrigor? Ikusi zintudan finalean, eta Abelen aldeko —eta Aimarren kontrako— zure historismoak-fanatismoak-harrirituta utzi ninduen. Hagitz deigarria egin zitzaidan zure jarrera, ez baitzetorren bat, nire us-tez, kirolari batek eman beharko lukeen irudierekin. Kartak bete betean baieztatu du, zoritxarrez, orduan hartu nitzun itxura.

Kantxan pasatu zenari buruzko eztabaidetan ez naiz sartuko. Aimarrek Abeli tantoak lapurtu zizkiolako finala irabazi ziola diozu zure gutunean, eta horrek erantzunik merezi ez duela badakite pilotazale guztiek, baita Barriolaren jarraitzaile etsuenek ere. Eskua ematearena, berriz, ikusi nahi zuten guztiek badakite ederki nola izan zen. 22. tantoa egin bezain pronto Aimar besarkatu eta lurrera bota zuten bere

lagunek, Abel hurbiltzearekin batera hain zuzen.

Karta idatzi ahalean berotzen joan zarela dirudi, eta azkenean Barriola bera ere kritikatzten duzu Aimar berriz iraintzearekin batera, «persona "faltsu" bati buruz ongi hitz egiten jarraitzea» leporatzen baitiozu zure idoloari. Hemen gailurra jo duzu Gereño gaztea. Zu bezelako puntako «kirolari» batek beste bati, Abeli, kiroltasunez portatu izana leporatzeak, izenik ez duela uste dut. Beraz, horrekin ederki kalifikatua, deskalifikatua? gelditzen zara. Zer nahi zenuen ba, bi pilotariak mutur joka hastea? Hori horrela bada, igerilari ona izanen zara, baina kirolari txarra.

«Negar malkoak ixuriz eta bihotzean hutsune handi batekin» irten omen zineten pilotalekutik. Maitane, zu baino zaharxeagoa naizenez, aholkutxo eman ezazu (zure baimenarekin) bukatuko dut karta: kirola askoz zentzu sanoagoan bizi behar zenuke, horrenbeste dramatizatu gabe alegia. Finalak, kasu honetan pilotarena, festa handi batzuk dira. Irabazten bada ospatu, eta galtzen bada... ere bai. Parrandarako beste aitzakia bat gehiago.

Aldekoa animatuz eta aurkaria errespetatuz. Badakit ondorengo topikoa dela, baina topiko asko bezala egia: Gure gizarte, herri eta etxetan horrenbeste zoritxar gertatzen izaki noiznahi eta, nola egiten duzue ba negar pilota partida batengatik?

Azkenean luzatu egin naiz baina ez dut bukatu nahi sujerentzi hau zuri bota gabe: Zergatik ez diozu Aimarren berri galdetzen zuk horrenbeste miresten eta nik ere asko estimatzen du-dan Abel Barriolari?

Begirunez,
Esteban Arozena
Goizueta

Maitane Gereñori

«Pilotatik baino pilotarako bizi da Aimar, eta jokatu bezela bizi da. Ez du titular handirik oparitzen. Ez da bere buruaz aritu zalea. Ez du Barriolak adinako etorririk. Ez dauka edo ez du erakutsi nahi, baina horrek ez luke inoiz Aimarren aldeko edo kontrako izateko argudio edo neurgailu gisa balio behar, eta iruditzen zait Gonzalezek esandako astakeriek efektu hori izan dutela jendartean. Besteak ahul egiten dituen horrek egiten du indartsu Aimar. Inoiz txapel-

dun izan nahi dutenek badute berarengandik zer ikasi».

Aurreko hau Enekoitz Telleria kazetariak idatzi zuen Berrian finalean biharamunean, eta Maitane Gereñoren karta ikusi orduko artikulua honetaz oroitu naiz. Zu «Gonzalezek esandako astakeriek» kutsatu zaituzte edo Aimarrek azio ikaragarriren bat egin dizu. Ez da posible bestela hainbesteko gorrotoarekin idaztea. Aimar, ezagutzen zaitugunok badakigu nolakoak zaren. Zu bai egiazko zapel-duna zarela, frontoitik kanpo beti... eta aurrean frontoian ere bai. Ez aldatu!

Eta Maitane Gereñori, berriz, Aimar-Gonzalezaren semifinalean telebistan agertutako pankarta batek zihoena esango diot: «Manipulaztaileak eta gezurtiak kanpora. Gora Aimar!» Ba, horixe.

C. Loiarte
Goizueta

Lesakako herriari

Gutun honen bitartez gure esker beroena luzatu mahi diogu Lesakako herriari botoen bidez gugan adierazi duen konfiantzagatik, egun hauetan erakusten ari diguzuen bezala. Urte

Iñaki Alzuet
margoak

Fabrika - Berronak
Dekoratze (Bilbao, Iruñea...)
Pintura - Lantzaile eta inbentarioa
Kantaria Etxea - Lantzaile Auzoa - 31711 URDAZUBI
Tfnoa: 939 862 417

egoi bardot obregozo arkitektoa

679649789 elizondo - braulio iriarte 33,1º D - 31700
948210963 iruñea - paulino caballero 15,1º A - 31002

• IRAKURLEAK MINTZO •

askotan koalizioan joan eta gero, aurten bakarrik aurkeztu gara eta 22 bo- toengatik ez dugu gehien- go absolutua atera. Argi dago herria gure gestio- aren alde dagoela. Ta- malez, politikan Lesakan gertatu den iruzurra egi- teko aukerak badaude. EAK eta Oninek egin du- tenari ez diogu guk izenik jarriko, azken finean eta guri egin diguten minaren gaintetik herriari egin dio- ten iruzurra baitago. Bai- na batez ere min gehien egiten diguna gure pro- grama garatu ahal ez iza- tea da.

Oninengandik (Aralar) ez genuen gutxigo espe- ro, batez ere 4 urte haue- tan izan duten portaera- gatik, kanpainaren azke- neko eguneko eraso mal- tzurra ez aipatzeagatik. Jakina da beraiek hauxe adierazi dute: «Onin EAJ- PNV alkatetzagatik boz- katzeko sortu zela», ho- rretarako biztanleria en- gainatu behar baldin ba-

da ere eta beraien siglak gorde.

EAREN kasuak, berriz, min gehiago egin digu. Azkeneko 4 urte hauetan harreman ona izan dugu eta gurekin lan egiten ja- rraitu nahi zutela erran di- gute behin eta berriro. Be- raien botoa bere buruari eman behar zutela adie- nari zuten momentuan konturatu ginen alkatetza nahi zutela, ongi baitze- kiten Oninen botoa be- raiendako izanzen zela. Be- netan boto gehien lortu zuen taldeak alkatetza hartzea nahi baldin ba- zuten aski zuten bere bo- toa xuria izan behar zela erratea.

Udaletan, eta edozein harreman politikoan kon- fiantza sortzea neketsua da, baina konfiantza hori zapuztea berehala lortzen da, batez ere Lesakako Udalaren eraketan gerta- tu den bezala EAKoek maltzurkeriaz jokatu du- tenean eta dauden akor- dioak bete ez dituztelarik.

Hau dena dela eta, egungo alkatea bere bu- rua artekari bezala orain aurkezteak ez du ezerta- rako balio, EAJ eta Onin (Aralar) talde maioritario- en arteko epaile gisa izen- datuz saiatzten. Eusko Al- kartasunak ez du uste- kabean alkatetza esku- ratu, hori ez da egia: bi- latu du eta hori lortzeko maniobratu du, nahiz eta horretarako gehien boz- katutako zerrendek alka-

tetza eskuratzeko akor- dio orokorrak alde bate- ra utzi.

Guk geuk, erantzuki- zunez eta leialtasunez, oposiziotik lesakarren bi- zitzita-kalitatea hobetzeko tinko-tinko jarraituko du- gu lanean, kontuan iza- nik haien gehiengoak jo- an den maiatzaren 27an EAJ-PNVrengan konfian- tza jarri zuela.

Juan Fermin Mitxelena
Lesakako EAJ-PNV

Ezbeharrak Ezkurran

Orain ere berri txar ba- tekin gatoz, berrogei ur- teko gizaseme bat, An- txon Noble Mindegia, uz- tailaren 4an lurperatu ge- nuela, alegia, minbiziaz hil ondoren.

Bere gurutz bidea orain dela urte batzuk hasi zen, errepideko istripu larri ba- tekin Aresoko txirindula- ri bat hil zenean. Berak sekulako ostiko sikologi-

koa jasan zuen, eta gero urdaileko gaitzak harra- patu zuela esan zioten. Ahalegin guztiak egin zi- tuen gaitz madarikatua menperatzeko. Baina de- na alferrik. Gaitza gero eta amorrubiziagoarekin zabaldu zen eta makal- tzen hasi, pisua jeitsi eta betikoa: heriotza. Emaz- tea eta sei eta hiru urte- ko alabak utzi ditu.

Sasoi beteko gizona zen, igeltsero trebea eta fina. Eraikuntza lantegi batzuetan lan eginda, au- tonomo bezala jarraitzen zuen Donostian, Iruñan eta herri aunitzetan. Hiru egun Nafarroako Ospita- lean egonez azken arna- sa eman zuen bere espi- ritua ondo prestatuz.

Badirudi Ezkurran ho- rrelako madarikazio be- rezi bat sartu dela: azken hamar urteotan bost biz- tanle hil dira gaitz hone- kin.

Fernando Etxeberria
Ezkurra

OHARRA

Eskutitz guztiekin bate- ra, idatzi duenaren izen- deiturak eta telefonoa bi- dali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iri- tzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 le- rro baino luzeago idaz- tea. Laburtu beharra iza- nez gero, **Ttipi-Ttapa** bere esku izanzen du ho- rretarako eskubidea.

 - Zinema programazioa eta erakustaldiak
- Bideo / Multimedia emanaldiak
- Soinuztapen orokorrak
- Tresneria alokairua eta solmenta

LATSAGA
KUB-ENTZUNEZKO ZERBITZUAK

Leakoa T/F 948 637 546 E.latsaga@telefonica.net

alletu dira ibardingo haize berriak...

 venta
AGUIRRE
benta

THE COTTÉ
TOMMY
PEPE JEANS
EDC
ESPRIT

JATETXEA
DENDA

IBARDINGO GAINA • BERA
948 631 158 • 948 631 314

**PRIM, c.b.**
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

 BAR
Botxo
OSTATUA

 JAKONE-GOZATEGIA

Atakoa 10 • BERA • 948030798

ESKUALDEA

Saharako 12 haurrek gure herrietan pasatuko dute uda

Saharatik ekartzeko egindako zozketako zenbaki saridunak jakinarazi dira

ttipi-ttapa

Iragan urteetan bezala, bisitan ditugu aurten ere Saharako haurrak. Guztira 12 etorri dira, eta Leitza, Baztan, Lesaka, Ituren eta Donamarian pasatuko dute uda.

Saharako haurrek euren herrian jaso ezin dituzten zerbitzuak jasotzea, eta bide batez, Saharako herriaren egoera zein den ezagutaraztea izaten da egitasmo honen helburua, eta horretarako 7.500 euroko aurrekontua du aurten Saharar Herriaren Elkartasuna Taldeak. Bidaiaik eta gainerako ekintzen gastuei aitzin egiteko, Euskadiko Kutxan kontua ireki dute, ahal duen guztiak laguntza eman dezan: 118.0.00920.7 *Sahar Herriarekin Elkartasuna* kontuan.

Bertzalde, Saharako haurrak ekartzeko egindako zozketaren zenbaki saridunak jakinarazi ditu Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeak. Dagoeneko etorri diren haurrei laguntzeko paratu zuen martxan zozketa aipatu taldeak, eta ekainaren 22an egin zen zozketa.

Hauek dira zozketaren zenbaki saridunak:



UTZITAKO ARGAZKIA

Leitza, Baztan, Lesaka, Ituren eta Donamarian pasatuko dute uda Saharatik etorritako haurrak.

Leitzan Harakindegian saldua 0806 zenbakia, Sagastin 0375, Erreka sagardotegian 1.277, Hiruso ostatuan 1.633 zenbakia, Muxun Zaharren 1.707, Beatrizenean saldua 1.324.

Malerrekan 7 izan dira zenbaki saridunak: **Iturenen** hiru saldu dira: Herriko Ostatuan 0563 zenbakia, Altxueña erretegiaren 0301 eta Aurtizko ostatuan 0388 zenbakia. **Oitzen** ostatuan saldutako 0455 zenbakia da sariduna. **Beintza-Labaiengo** ostatuan saldutako 1079; **Elgorriako** Hilarion

jatetxean saldutako 0461. **Doneztebeko** Belarra jatetxean saldua da Malerrekako bertzea, 0662 zenbakia, hain zuzen.

Baztanen 10 zenbakik jasoko dute saria. **Arizkun**en Uxoa okindegiaren saldu zen 0195 zenbakia, eta Ordoki erretegiaren saldutako 0334. **Elizondon** hauek dira saridunak: Galarzan saldutako 0205 zenbakia, Kortarixarren saldutako 1441, Eskisarioen saldutako 0869 eta Itzalargikobordan egindako 0932. **Elbeten** bi dira saritutako zenba-

kiak: Elbeteko Ostatuan saldutako 0017 eta Oñaska jatetxean saldua, bertzea, 1843. **Oronoz-Mugairin** Pierre-senean saldu zuten 1544 da saritua, eta **Gartzainen** Fransenean saldutako 0741.

Bortzirietan, bortz izan dira zenbaki saridunak. **Lesakako** Koxkonta jatetxean saldutako 0617 eta Kattun saldutako 1141 zenbakia; **Etxalarren** Herriko Ostatuan (1334) eta Elutza Ostatuan (0555) saldutakoak, eta **Igantzin** La Villan saldutako 0630.

FLASH

Hiri Hondakinen egutegiaren zozketa

Baztan, Malerreka eta Bortzirietan urte hasieran banatu ziren egutegiak zeramatan zenbakien zozketa egin zen ekainaren 30ean. Hain zuzen, **irailean bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldiaren zozketa**. Hiru zenbaki ater dira, 5061, 1927 eta 4499. Saritua zenbaki bakarra da, eta lehenbizikoa agertzen ez bada, bigarrenak eramanen du saria, bertzela hirugarrenak. Hiru kasuetan, uztailaren 31 baino lehen deitu beharko da 948 63 52 54 telefonora.

Enpresa ttikientzako aholkularitza programak prestatu ditu Cedernak

Cederna-Garalur Elkarteak Nafarroa mendialdeko enpresa ttikiei bideratutako bi programa prestatu ditu: gastuak kontrolatzeko programa bat, eta lan arriskuaren prebentziorako, bertzea. Biak ere, donan. Gastu sistemen ezartzea deitu duten programan, enpresa bakoitzak etekin handienak ater ahal izateko produktu edo zerbitzuak zein diren identifikatzea da helburua. Bertze programarekin, berriz, lan arriskuak guttiti nahi dira. Batez ere aholkularitzan oinarrituko diren programa hauetan izena emateko, Cedernarekin jarri beharko du harremanetan: *Cederna Garalur, Marcelo Zelaieta, 75, AA3, 31014 Iruña* helbidean, edo 948 382593 telefonon (Soraya Diaz).

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Aitzale, 17 - BERA

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguzkeroko inentia eta
anbuzurutan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkalfo
Farien Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

BERA

Gure Txokoa Elkartea gaztetxoentzako futbol entrenatzaileen bila dabil

Maila bakoitzean pare bat entrenatzaile nahi dira

Amaia eta Ainhoa

Gure Txokoa Elkartea gaztetxoentzako futbol entrenatzaileen bila dabil. Maila bakoitzean hamabortz haur inguru aritzen dira, astean biz-pahiru aldiz entrenatu eta asteburuetan partidak jokatzeko dituzte. Maila bakoitzean pare bat entrenatzaile lortu nahi dituzte, hartara, lasaiago lan egiteko. Elkartetik jakinarazi dutenez, laguntza eskaini nahi dutenek ez dute entrenatzaile titulua eduki behar. Dena den, izena ematen dutenek aitzinago titulua atera ahal izanen dute eta elkar-teak horretarako laguntza eskainiko die. Garrantzitsuena "ilusioa eta gogoia izatea" dela dio- te arduradunek.

'La Miguel Indurain' uztailaren 29an

Ekainaren 28an aurkeztu zuten Iruñan XVI. La Miguel Indurain. Aurtien uztailaren 29an eginen da eta aitzinekoetan bezala, Club Ciclista Beratarrek bi ibilbide prestatu ditu: A ibilbidea

186 kilometrokoa, eta B ibilbidea 113koa. Xehetasun gehiago 37. orrialdean aurkituko dituzue.

Lizuniagako ehiza barrutia prestatzen

Berako Ehiza eta Arrantza Elkartea Lizuniagako ehiza barrutia prestatzen hasi da. Elkar-teak 2006ko denboraldirako ehiztari taldeak mantenduko ditu, eta al- ta edo baja eman nahi bada, elkarteari idatziz jakinarazi beharko zaio. Izen emateak uztailaren 6an, 1an3 eta 20an 19:00etatik 21:00etara egin beharko dira elkar-tearen egoitzan. Gisa berean, aipatu, abuztuaren 10ean eginen dela ehiztarien egutegia- ren zozketa.

Mugabe Clown ikastaroak

Abuztuaren 4tik 26ra bitartean Alkeberera lan- detxean maila ezberdi- netako 3 clown ikasta- ro eskainiko dira. Ra- mon Albisturrek ema- nen ditu eta 45 orduko- ak izanen dira. Lehen- dabiziko maila (Hasta-

pena) abuztuaren 4tik 10era izanen da, biga- rren maila (Sakontzea) abuztuaren 12tik 18ra eta hirugarrena (Sor- menaren bideak ireki- tze) abuztuaren 20tik 26ra. Hiru maila hauek ziklo osotu eta jarraia osatzen dute. Ikastaro- aren prezioa 360 euro- koa da. Ikastaroak irau- ten duen bitartean Al- keberera landetxean sei gau pasatu eta mante- nu osoa 260 euro gehia- go ordaindu beharko du bakoitzak.



Unai Ruiz, bestetako kartel lehiaketaren irabazlea

Kultur Batzordeak antolatutako kartel lehiaketa- ren irabazlea Unai Ruiz Galartza izan da. Zor- tzi parte hartzaile izan dira lehiaketan eta Unai Ruizen kartela aukeratu dute Berako besteta- ko egitarauaren azalean agertzeko.



ARTXIBOA

Orain zazpi urte La Miguel Indurain lasterketari hasiera eman aitzinean.

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tel: 948 625 472
BERA NAFARROA

carohe
gortegiak okindegia
of. de estofas 25 baxo 1948 63 08 99
34700 berri (navarra) www.carohe.net

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

LESAKA



ARGAZKIA: AITOR A.

Pilota eskolak Sanferminen aitzinetik erakustaldia eskaini zuen

Arkupe elkarteak gidatzen duen herriko pilota eskolako gaztetxoek hainbat txapelketetan parte hartzen dute han hemenka. Sanferminen aitzinetik, ekainaren 30ean herrian erakustaldia eskaini zuten. Punttoan, banaka, nahiz binaka aritu ziren. Goizean, bertzalde, txokoko txapelketaren finala jokatu zen. Jorge Etxepeteleku lesakarra gailendu zitzaion Jabiertxo Iparragirre aranztarrari.

FLASH

Igeriketa ikastaroak

Ekainaren 28an ireki ziren udal igerilekuak, udako sasoiari ekiteko. Orain, uztailaren 16tik abuztuaren 3ra igeriketa ikastaroak emanen dira. Izen emateko epea ortziral honetan, uztailaren 13an itxiko da. Horretarako, Nafarroako Kutxan kuotaren ingreso egin, eta justifikantearekin igerilekuko sarreraren izen eman. Helduke 40 euro ordaindu beharko dituzte eta hurrek 35. Mailei dagokionez, 9 urtetik goitikoentzat hobekuntza emanen da 11:00etatik 11:45era; 6-8 urte artekoek igerian ikastea izanen dute 11:45etik 12:30era eta 4-5 urtekoek flotatzen ikastea 12:30etik 13:00etara. Helduke ere ikastaroa izanen dute 13:00etatik 14:00etara.

Komentuan zaharberritze lanak

Kultur Etxearen proiektuak aitzinera egiten duen bitartean, komentuen teiltua eta faxadak berrituko dira eraikinak okerrera egin ez dezan. Lan hauen aurrekontua 406.000 eurotan kalkulatu da, BEZ-ik gabe, eta Nafarroako Gobernuak %45ean (182.000 euro) lagunduko ditu. Enpresek uztailaren 11 arte zuten Udalak lanak adjudikatzeko zabaldu duen deialdiari erantzuteko eta obrak abendu hasierarako bukatuak egon beharko dute.

Oninek alkatetzarako EAri botoa emateko arrazoiak agertu ditu

Funtzionamendu eredia aldatzea omen du helburu

Aitor AROTZENA

Onin udal taldeak EAri botoa eman eta Koldo Erkizia alkate egin zuen bere jarrera azaldu nahi izan zuen ekainaren 27an eman zuen prentsaurrekoan.

Ideologi ezberdinez osaturiko talde anitza omen da Onin eta denek helburu bera omen dute, udal kudeaketa lortzea. Alkatetza eskuratzeko zen nahia, ez boterea lortzearen, baizik eta funtzionamendu eredia aldatu eta azken ur-

teotako agintezko kudeaketari amaiera emateko.

Onin taldeak agertu zuen ANVrekin elkarriketak izan zituela Udala eratu baino lehen, beti ere legezkotasunaren barne eta bere ideiak kontutan hartuz. 4 ordezkarien bidez ANVri ahotsa ematea eskaini zioten, baina beti ere, negoziatioetan Udalan aldaketa bat eman zedin akordioa lortzen bazen bi taldeen artean. Hauek akautu bai-

no lehen, alkate berria izendatu behar zen eta negoziatioak bihar amenerako utzi zituzten. Oninek ez zuen garbiori eman behar zion botoa, baina emandako hitzari ez diola hutsik egin argitu zuen.

Onin Udal Taldeak aldaketa nahi zuen, PNVk azken 20 urteotan kudeaketa egin ondotik. Talde bezala gai direla uste dute eta EAren babes behar zuten. Argi utzi zuten ez direla saldu eta epe batean ez

badira aldaketak ematen Udalan, bere esku dagoena eginen dutela helburuak lortzeko.

Aldi berean, argitu nahi izan zuten ez dutela EAJ udaletik bota. Hauteskundeetara aurreratu den talde orok garbi izan behar du bere lana herriarentzat lan egitea dela, boterean egon ala ez. Zinegotziek aukeratzen dute alkatetza, eta kasu honetan, gehiengoaren konfiantza Koldo Erkiziak lortu du.



ETXALAR

Udal ordezkariak karguak banatu dituzte

Udalekoak ez ezik, mankomunitatekoak ere bai

Joseba eta Nerea

Hauteskundeak eta gero, lehenengo lana Udala eratzea izaten da, eta ondotik, alkatea aukeratzea. Horrela egin, eta Patxiku Irisarri aukeratu zuten alkate zinegotziek. Alkateordea, berriz, Xabier Iturria izanen da legealdi honetan. Hurrengo pausua lanak eta batzordeak eratzea eta osatzea izaten da. Lan hauen ardurak izaten dute, bertzeak bertze, hurrengo urteetan Udalean egonen diren zazpi zinegotziek: Hirigintza Xabier Iturria eta Arantxa Zubieta arituko dira; Nekazaritza, Azienda eta Mendiko lanetaz Irati Lujua eta Jose Antonio Telletxea arduratuko dira; Gizarte Ongizate, Kultura eta Kirol arloan lan egiten dutenak, berriz, Nerea Mi-

txeltorena eta Agustin Arribillaga, Eskola kontseiluan Xabier Iturria eta Arantxa Zubieta ordezeko bezala. Lan hauek herriari begira koak izanen dira, baina Bortzirietan Udalaz gain bertze erakunde batzuk ere badaude, hala nola, Mankomunitateak. Eta hauek izanen dira Etxalarko ordezkariak berauetan: Gizarte Zerbitzuen eta Hiri-hondakinen Mankomunitatean Patxiku Irisarri; Euskara Mankomunitatean Nerea Mitxelorena, Cederma-Garalurreko ordezkaria Agustin Arribillaga eta Bertziko Patzuergo Turistikoarena Irati Lujua.

Usategietako bisita gidatuak

Laugarren udaz antolatu dituzte usategietara bisita gidatuak



UTZITAKO ARGAZKIA

Udaleku irekiak

Bertze urte batez haurrek udako goizak zertan pasa badute, Euskara Mankomunitateak udalekuak antolatu baititu. Urte batzutan haur kopuru tiki samarra ibili eta gero, aurten 27 inguru animatu dira udako goizak lagun artean igarotzera. Hainbat ekintza egiten dituzte lau astetan. Uztailaren 2tik 27a arte eskulanak egiten, txangoak, jolasak, eta abar egiten ibiliko dira. Udalekuen gidaritzan Saioa Otazo, Lorea Arangoa eta Miren Santesteban egonen dira. Seguru aski primeran pasatuko dituzte uztaileko goizak elkarrekin.

Edurne eta Laura Elizagoen ahizpak. Bertze urtetan ibiltzen den jendea ikusirik eta gure herriari eta eskualdera etortzen diren bisitariak kontuan hartuz antolatu dute bereziki ekintza hau. Nahiz eta ehi-za sasoiak udazkenean den, udako garai hau aprobetxatzeko dute bertara hurbiltzen diren guzietan Etxalarko usategietara berri emateko, eta

antzinako ehiza modu berezi hau zertan dartzan azaltzeko.

Bidasoaldeko XI. nazioarteko folklore jaialdia

Hamaikagarren aldia da gure eskualdeko Nazioarteko gazteen folklore jaialdia hartzen duela, eta Etxalarren nahiko sustraitua dagoen jarduerak da, hainbat eta hainbat herritar hur-

biltzen baita bertze herraldetatik etortzen diren gazteak beraien kulturaren zantzu batzuk erakusten dituzten dantzak ikustera.

Aurten uztailearen 22an, igandean, meza nagusiaren ondotik izanen ditugu herriari Bashkortostandik etorritako Vesselinka taldea eta Perutik etorritako Inkamerika taldea plazan.

PIKABEA
harategia • urdaitegia
janari prestatuak
Askuin, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

BORTZIRUDI
bortzirudi@telefonica.net
KARTELAK - KAMISETA - BIFERRAK - TOSAFERRAK (Nahi duzun neurri - dimiturakin)
FOTOCOPIA DIGITALAK, BULBOITAK, TIGRI-BULBOITAK - PLANDAK
ENKADERNATZAK - PLASTIFIKAZIOAK - PEPEPOTAK - BULEGO MATERIAIA
DISEÑU GRAFICIA - LOGOTIPOAK - ERROTULUA - IMPRENTA
Eztegara, 26. Eskuineko Beheko D - BERA - Tel-Fax: 948 631 521

Belarra
jatetxea
948 450 306
Amezlia karrika
DONEZTEBE

ARANTZA

Madariaga, Pikabea eta Mitxelena txapel banarekin etorri dira Irundik

Heldu den astetik aitzinera udalekuetan izanen dira gaztetxoak

Nerea ALTZURI

Irungo Kurpil Kiroi Taldeak antolatzen duen pilota txapelketak hiru txapel ekarri ditu herri-ara. Aitzineko alean aipatu genizuen bezala, joan den ekainaren 22an jokatu ziren finalak Irungo Urantzu pilotalekuan, gazteen mailan eta senior mailan, eta bietan izan genituen ordezkariak. Gazteen mailan, Joseba Madariaga aritu zen Hodei Iturriotz lagun zuela, eta 22 eta 11 garaitu zituzten Quina eta Esnaola. Senior mailan, berriz, Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena 22 eta 18ko emaitzarekin irabazi zioten, Cerezo lesakarrari eta Huarte arizkundarrari. Ikusleen emoziorako partida gogorra eta peleitua izan zen, baina azkenean hiru txapelak Arantzan. Gainera, epaileek Beñaten lana nabarmendu nahi izan zuten, eta sari berezi bat eman zioten. Zorionak, beraz, hirurei!



ARGAZKIA: ITZIAR MITXELENA

Txapelak Antton Maizekin batera. Antton sariak banatzen aritu zen.

Udalekuak

Bortzirietako Euskarra Mankomunitateak antolatuta, astelehenetik aintzinera udaleku irekiak izanen dira. Herriko bestak arte, beraz, hilabete batez herriko gaztetxoek oporraldian aukera ederra izanen dute jostatuz ongi pasatzeko. Lerro hauek idaztean izen emateko

epea itxia ez zegoenez, ezin izan dugu zenbat haurrek parte hartuko duten informaziorik eman, ez eta begiraleen izenik eman ere.

Arantzak badu Interneteko atari berria

Udalak Interneteko ataria estreinatu berri du: www.arantza.eu.

Herriaren berri emateko asmoz, herriko datuak, argazkiak, bisitatzeko txokoak, telefono interesgarriak, herriko ohitura eta tradizioak eta bertze hainbat kontu ezagutzeko leku aproposa da. Proiektua Animnsa enpresak garatu du, eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin egina da.

FLASH

Gurutze Iparragirrearen poesia saritua

Pasa berri den ikasturtean, Hezkuntza Departamentuko Euskara Zerbitzuak poesia lehiaketa antolatu zuen lehen hezkuntzako ikasleei zuzenduta, eta herriko eskolako Gurutze Iparragirre Oskozek bigarren saria irabazi zuen. Ekainaren lehenan egin zen Nafarroako Jauregian sari banaketa. Gurutzek zaletasun handia badu eta idaztea gustatzen zaio. Lehiaketa horretara *Is-pilu magikoa* izeneko poesia aurkeztu zuen. Zorionak Gurutze!

Hauxe poesia: *Nik is-pilu bat dut/bertan gogo-a dudana ikusten dut./Dragoi bat izan naiz ispiluan/eta erregina bat nere erreinuan./Sorgin, azti eta mago kobazuloan/eta maitagarri bazoan./Gaur ispilua ez dit kasurik egin/izan ere arraro dabil./Aingerua izan nahi nuela erran/eta berak niri deabrua eman./Nire ispilua ez da betikoa/jadanik ez baita magikoa./Lada, ni ni naiz/eta ez sorgin, ipotx edo sirena./Baina atzogaiza bat ikusi nuen/nire ispilua betikoa zen./Orain inoiz bezala tratatzen dut/edozein unetan galtzen ahal baitut.*

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

BIKER-BIKE

Kanitonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

Zj
Zalain
jatekua - hostala

14 logela bainu
eta TBrekin

Zalain auzoa s/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

Tel:
948 634 179
ARANTZA

ATERPE
ALBERGIA

ALBERGIA · JATEKUA

ARTZUN

Toailak-Mantelariak-Oheko mairuak.
Eskolako hauren mantalak etab...
bordatzan ditugu

Herriko bestetarako, kamisetak, eta blusa
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu

Herri Pl. Berri 4ra eta ibili bertako eskaintza!!! Tel: 948 637 660 - 689 487

IGANTZI

Bederatzi herritarrek parte hartu dute 'Quebrantahuesos' bizikleta lasterketan

Bertze bi herritarrek *Treparriscos* lasterketa egin zuten

ttipi-ttapa

Joan den ekainaren 23an Sabiñanigon (Huesca, Espainia) jokatu zen *Quebrantahuesos* bizikleta lasterketa, eta aurten ere ordezkari za zabala izan zuen Igantzik. Zehazki bederatzi txirrindulari izan ziren han: Iñigo Almandoz, Xabi Aranguren, Josetxo Arburua, Mikel Arburua, Iñaki Hita, Iñigo Telletxea, Julen Txoperena, Oskar Txoperena eta Mikel Urtegi. 205 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten.

Egun berean egin zuten *Treparriscos* izeneko lasterketa ere, eta honetan bi igantziarrek parte hartu zuten, Sebas Antxordokik eta Imanol Retegik. Proba honetan aritu zirenek 90 kilometroko bidea egin behar izan zuten.

Azpiegituretara-ko diru-laguntza
Nafarroako Gobernuak 75.682,49 euroko diru-laguntza onartu du Igantzirentzat. Horieta-rik 71.504,34 euro herriko depositu berritik Igantziko Bentetako depositurainoko obrak egiteko bideratuko da. Proiektu honen aurrekontua 103.681,28koa

da. Laguntzaren gaine-rako 4.178,15 euroak, berriz, Agertxeberri-Bordaberrirako bidean 390 metro koadrotan hormigoia botatzeko izanen da. Aurrekontua 138,307,5 eurokoa da.



ARGAZKIA: GOIKO

San Juan Xarreko besta

Urteroko ohiturari hutsik egin gabe, San Juan Xarreko besta egin zen ekainaren 24ean. Inguruko herrietatik ez ezik, kanpotik ere jende andana hurbildu zen, batez ere, Gipuzkoatik. Martin Legarra Arantza eta Igantziko apezak meza eman ondotik, herriko dantzariak —argazkian— euren dantza saioa eskaini zuten. Biltoki Txiki Elkartekoek paratzen duten ostatua tragoxka eta pintxo bat hartzeko aprobetxatu zuen jendeak. Beti bezala, uztaileko igande guztietako meza nagusia bertan izanen da.

Istripua Berrizaunen
Joan den ekainaren 26an istripua izan zen Igantziko Bentak eta Etxalarko Benta artean, N-121A errepideko 58,5. kilometroan. Kamioi bat irauli egin zen eta ondorioz, errepidea itxita gelditu zen 13 orduz. Auto eta kamioi ilara luzeak sortu ziren alde batera zein bertze-
ra.

Emaitza onak Iparraldeko Jokuetan
Parte-hartzeaz gain, emaitza bikainak eskuratu dituzte igantziarrek Iparraldeko Joku Torneoan, taldeka zein banaka. Honen inguruko, xehetasun gehiago kirolen atalean aurkituko dituzue.

Lizuniaga
HOSTAL - RESTAURANTE

Oilasko erreak eramateko.
Enkarguak hartzen dira.
Logelak bainugela eta telebistarekin

Lizuniagako gaina • 31780 BERA
Tel.: 948 63 10 31

Mailposta Buzoneos
Leitzakoa bidea, 9 • DONEZTEBE • 948 592 313

• Inprimategia
• Publizitatea
• Diseinu grafikoa

ZOANSA

MARKA GUZIEN KONPONKETA

Banarita: 2 - Alkaiaga Industrialea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ANTZUZELA S.L.

Tel: 948 631 317

HARRI NATURALA

Aberatze eta Lintze

Antzuzela S.L. hasi du bere proiektua. Hainbat proiektu ditu abian, eta horien artean, Antzuzela S.L. hasi du bere proiektua. Hainbat proiektu ditu abian, eta horien artean, Antzuzela S.L. hasi du bere proiektua.

ZINDARRIAK
ADOSARRAK
ZOLAK

Inongo enpidea
S.P.A.

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

2007an ingurumenari buruzko boluntariora eta hezkuntza jarduerak eskolaz kanpo egiteko diru-laguntzetarako deialdia eta haren oinarriak ezartzen dituen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 69 zk., 2007/06/04* 178/2007 Foru Agindua, apirilaren 12koa *Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/076/F0706186.htm>

Industrien jarduerak ingurumenean duen eragina prebenitu, zuzendu eta kontrolatzeko jarduketak egiteko diru-laguntzetarako 2007ko deialdia eta haren arauak onesten dituen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 69 zk., 2007/06/04* 233/2007 Foru Agindua, maiatzaren 10ekoa, *Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak emana.*

<http://www.cfnavarra.es/bone/076/F0707827.htm>

2007ko maiatzeko lehen astean Foru Komunitatearen iparraldean gertatutako ekaitz eta uholdeen ondorioz nekazaritza sektorean eragindako kalteak konpontzeko laguntza bereziak ezartzen dituen Foru Dekretua.

Non argitaratua: *NAO 68 zk., 2007/06/01* 46/2007 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa.

<http://www.cfnavarra.es/bone/075/F0708604.htm>

Kalitatezko nekazaritza produktuen merkaturatzea hobetzeko sustapen ekimenak bultzatzeko laguntzak emateko arauak ezarri eta 2007ko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 68 zk., 2007/06/01* 143/2007 Foru Agindua, maiatzaren 14koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eli-*

kadura kontseilariak emana.

<http://www.cfnavarra.es/bone/076/F0708216.htm>

2007rako hirugarren adineko pertsonendako jantokietarako erraztasunak emateko diru-laguntzen deialdiaren arauak onesten dituen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 68 zk., 2007/06/01* 119/2007 Foru Agindua, maiatzaren 14koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*

<http://www.cfnavarra.es/bone/076/F0708432.htm>

2007an ikusentzunezkoak ekoizteko laguntzen deialdia onesten duena.

Non argitaratua: *NAO 77 zk., 2007/06/22* 29/2007 Foru Agindua, maiatzaren 18koa, *Toki Administrazioako kontseilari eta Gobernuaren eledunak emana.*

<http://www.cfnavarra.es/bone/076/F0708971.htm>

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

DONEZTEBE



Umore eta giro ederrean joan ziren, aurtengoan ere, Sanpedro bestak

Avelino Mitxeo zientgotziak bota zuen txupinazoa

tipi-ttapa

Avelino Mitxeo zinegotziak botatako suziariarekin abiau ziren aurtengo Sanpedro bestak. Horrela, eman zieten hasiera 5 eguneko bestei. Kirola, musika, dantzak, betizuak, jokuak... Era guztietako ekitaldiez gozatu zuten bertakoekin zein kanpotik etorritako bisitariek. San Pedro Egunean, banderaren dantzaz gain, Trapatan eta bertze tradizioko dantzak ikusteko modua izan zen eliza ata-

Umeen mailan Léa Beules azkaindarrak irabazi du

ttipi-ttapa

Ekainaren 27an banatu ziren Turismo Bulegoak eta Herriko Etxeko Kultura Zerbitzuak antolatutako argazki lehiaketako sariak. *Gizakia eta animalia* izeneko sariketarakas-ta haundia izan zuen bai inguruan eta bai nazioartean ere. Izan ere, Frantzia, Espainia, Belgika, Italia eta bertze hainbat lekutakoen lanak aurkeztu ziren. Gaia berdina zen guztientzat, baina sormen lanetan aniztasuna nabaria zen. Azkenean, lehendabiziko bi sariak Frantziar joan ziren, Mulhousera eta Calaisera, hurrenez hurren. Mariette Cardinalek eraman zuen lehen saria—irudian ageri da saritutako argazkia—, eta Michel Guerbadotek bigarrena.

Bertzelako sariak ere banatu ziren La Layrinthe argazki galerian egindako ekitaldian. Horien artean, bat herrian



ANNIE DUMAYK UTZITAKO ARGAZKIA

Lehiaketara aurkeztu ziren lanen artean, epaimahaiak goian ageri den argazkia aukeratu zuen.

gelditu zen: umeen mailan, Léa Beulesek irabazi zuen. Publikoare-

na, berriz, Urruñako Sonia Penelentzat izan zen.



SARA

Ziurtagiriaren elkartearekin bat egin dute Ipar Euskal Herriko 230 entitatek

Saran 25 entitatek dute ziurtagiria

Xan HARRIAGUE

Joan den ekainaren 28an, Bai Euskarari Ziurtagiria duten Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberuko 230 entitatek bat egin zuten sortu berri den Ziurtagiriaren Elkartearekin. Lur Berri gelan ospatutako ekitaldian, Xabier Mendiguren Kontseiluaren idazkari nagusia, Euskal Konfederazioko Sebastien Castet eta Jean Aniotzbebehare auzapeza han egon ziren, baita Bai Euskarari Ziurtagiria dituzten hainbat saltoki, zerbitzu emaile eta elkarten ordezkariak ere. Xabier Mendigurenek erran zuenez, euskararen erabileran entitateek zererran handia dute «Zuek, herritar euskaltzaleak, zarete prozesuaren egiazko motore euskara aitzinarazteko tenorean».

Ekitaldi horrekin, Bai Euskarari Ziurtagiriak zazpigarren urtebete-

tzea ospatu zuen Ipar Euskal Herrian. Gaur egun ziurtagiria duten 25 entitate daude herrian, 8 zerbitzua euskaraz ematen ahal dutenak, eta 17 bidean direnak.

Moto triala

Ekainaren 16an, lehen Zig Zag moto trial txapelketa jokatu zen Ibardingo mazeletan, eta beterranoen A mailan Pipo Garbisok hirugarren postua lortu zuen.

Besten taldea

Besten taldeko zuzendaritza batzordea aldatu da. Bost urte egin eta gero, Frederic Barnechek presidente lekua utzi du, eta bere ordeez hiru lagun arituko dira, Idoia Errandonea, Pantxo Larzabal eta Cedric Etxegarai. Idazkari berria Vincent Garat izanen da, eta diruzain lanetan Bernadette arituko da.



ARGAZKIA: LAETICIA GUERENDIAIN

Xiba euskal jokoen finalean saratarrak

Sarako taldeak 17. bukatu du ekainaren 30ean, Mendikotan jokotutako Xiba euskal jolas eta jokoen txapelketako finalean. Maiatzean, herrian jokatu zen Lapurdiko kanporaketa irabaziz, finalerako txartela eskuratu zuten, baina han maila hobea atzeman zuten, eta ezin izan zuten gauza handirik egin. Finalean, Euskal Herri osotik etorritako 20 talde neurtu ziren, dantzan, musean, soka-tiran, harri altxatzen, ingudeetan eta lasto altxatzen, bertzeak bertze. Puntu gehienak bildu zituen Beasaingo taldea izan zen.



ARGAZKIA: XABI BERRUET

Elkatasun eguna

Herriko hainbat elkarte maiatzaren hastapeneko uholdeak sufritu zituztenentzako elkatasun eguna antolatu zuten joan den ekainaren 24an. Egunguzian ekitaldi franko izan ziren plazan, dantzak, haur jokoak, kantaldiak, kontzertuak eta eguerdian bazkari herrikoia. Egunguzian bildu diren etekinak kaltetuei banatuko zaizkie.

HERRIZ
ETXEREN
ERKATEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0539542519
Maïxan eta Véronique
SARA

BURKAITZEA
- ostatu
- erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
945 599 280 - URDAZUBI

SENPERE

Herriko Etxeak eta Herri Urrats elkarteak 'Lurratik hizkuntzara' erakusketa prestatu nahi dute aintziran

La Nivelle kanpalekua hetsiarazi dute, Ibarrungoa irekia egonen da

Franck DOLOSOR

Herriko Etxea eta Herri Urrats elkarteak elkarlanean ari dira ibilbide pedagogikoa sortzeko. Aintziraren inguruan instalatuko diren gune interaktiboz osatuko dute *Lurratik hizkuntzara* erakusketa. Euskal Herriko zazpi lurraldeetako mintzairak eta kulturak ezagutaraztea da erakusketa berri hunen xedea, eta 60 000 euroko gastua du. Herri Urrats 7000 euro pasatxo pa-

gatuko lituzke eta gainerakoa herriak. Dirulaguntzak galdeginen zaizkie Paueko Kontseilu nagusiari eta Euzkararen Erakunde Publikoari.

La Nivelle kanpalekua itxita

Paueko prefeturak La Nivelle Helbarrungo kanpalekua hestea deliberatu du. Seguritasun neurriak ez omen dira nahiko onak eta arazok saihestu nahi dira

urak berriz ez ateratzeko. Ibarrungo kanpina, aldiz, irekia izanen da buruila arte. Prefeturak begi onez ikusi du uholdeen gauean kapineko jabeek bezeroak abisatu zituztela eta lekuak hustu zituztela. Alerta sistema publikoa ez zen behar bezala ibili baina jabeek beti zaintzen dute Urdazuri ibaiaren goratasuna. Uztailaren 10ean, deliberatuko dute zein toki hetsi behariko duten baina akanpalekuaren ateak za-



ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE

Aurten ere herriko kirolariak omendu dituzte Herriko Etxean. Argazkian, kirolari onenak.

balik egonen dira. Oso ki hetsarazi izan balute, kalte haundiak sortuko ziren herriko saltegienez, udatiar guttiago ibiliko baitzen herrian.

Platino Ezteiak

Platino Ezteiak osatu dituzte berriki Lucie eta Albert Etchegarayk. Horrek erran nahi du badirela 70 urte esposatu zirela. Besta ederra egin dute beren 7 seme alabekin, 10 haur tikiakin eta horien 12 haur tikiakin.

Amotzeko bestak

Herrikoen ondotik, orain Amotzeko bestak heldu dira. Asteburu huntan, pilota partidak eta musika nagusituko da. Urgabe eta Kospeiak taldeek larunbata gaua alaituko dute eta igandean, 19:00etan, Bidaia taldea entzuten ahalko da. Mixel Ducau baxenafartarrak eta Caroline Philips kaliforniarrak osatzen dute folk musika goxoa eskaintzen duen bikote hori.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrek S.L.
Funeraria Baztan

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



Idoia SAGARZAZU

Arizkun, 2007ko uztailaren 1ean

*Izar eder bat dago
hor goiko Malkoan
Errota zaharra berriz
errota zokoan
Berebiziko pena
daukagu barruan
Ezin gintezke bizi
elkarren ondoan...*

**GOÑI-LAKAR FAMILIA
ARIZKUNGO LAGUNAK**

EZKONTZAK

Oscar Villamea Gomez eta **Natalia Saralegi Mindegia**, Bera eta Donamariakoa, ekainaren 2an Donamarian.

Eduardo Ibañez Arraztoa eta **Arantxa Apezetxe Vicente**, Iruña eta Iruritakoa, ekainaren 16an Iruritan.

Alberto Barberena Goñi eta **Miren Meoki Plaza**, Elizondo eta Ormaiztegia, ekainaren 23an Elizondon.

Jose M^a Arraztoa Alkasena eta **Amaia Sarratea Etxeberria**, Iruña eta Arizkungoa, ekainaren 23an Arizkungoan.

David Bidaurre Elizegi eta **Ainhoa Iturralde Gortari**, Iruña eta Arizkungoa, ekainaren 16an Arizkunen.

Telmo Marchessi Eugi eta **Lille M^a Hekneby Sanchez**, Donostiakoak, ekainaren 23an Elbeten.

Royer Jean Capdeville eta **Sara Puga Cid**, Baiona eta Ourensekoa, ekainaren 30ean Elizondon.

Alberto Elgorriaga Mikelperizena eta **Leire Intza Lekuona**, Lesakakoak, ekainaren 23an Beran.

Miguel Tapia Zozaia eta **Ainhoa Agirre Lasa**, Lesaka eta Berakoa, ekainaren 30ean Beran.

Aitor Mutuberría Uitz eta **Marta Sanjurjo Etxepare**, Goizueta eta Lesakakoa, ekainaren 16an Lesakan.

Miguel Angel Gajate Altzate eta **Ainhoa Olaetxea Villanueva**, Bera eta Lesakakoa, ekainaren 23an Lesakan.



SORTZEAK

Jairo Etxenike Lizasoain, Iruritakoa, ekainaren 5ean.

Martin Maritorea Agerrea, Elizondokoa, ekainaren 15ean.

Markel Torres Aleman, Oronoz-Mugarikoa, ekainaren 15ean.

Izaro Lournagarai Zubieta, Arraiozkoa, ekainaren 25ean.

Intza Zubieta Iturria, Berakoa, ekainaren 27an.

Oier Ordoki Fagoaga, Lesakakoa, ekainaren 27an.

Manex Danboriena Ibarra, Etxalarkoa, ekainaren 8an.

Jokin Arregi Barriola, Leitzakoa, ekainaren 12an.

Haizea Muñoz Ursoa, Aranokoa, ekainaren 10ean.



HERIOTZAK

M^a Camino Aranburu Iriarte, Elizondon, ekainaren 19an, 93 urte.

Joaquina Esarte Jaimerena, Elizondokoa, ekainaren 26an, 93 urte.

Jose Roman Yarza Galartza, Goizuetakoa, ekainaren 27an, 66 urte.

Javier Berroeta Alba, Goizuetakoa, maiatzaren 31n, 61 urte.

Laureano Txoperena Agara, Lesakakoa, ekainaren 29an, 88 urte.

Manuel Pikabea Goia, Berakoa, ekainaren 23an, 73 urte.

Jose Miguel Ariztegi Telletxea, Lesakakoa, ekainaren 28an, 81 urte.

Manuel M^a Lasa Arastua, Lesakakoa, ekainaren 29an, 84 urte.

Agustin Vicente Elizagoien, Etxalarkoa, uztailaren 1ean, 80 urte.

Antton Noble Mindegia, Ezkurrakoa, uztailaren 2an, 40 urte.



**Ramona
REMENTEGI ALTZUGARAI**
Arantzan, 2007ko ekainaren 16an

*Nahiz eta gureartetik
urrutira joan,
beti izanen zaitugu
gure bihotzean*

ZURE FAMILIA



**Antton
NOBLE MINDEGIA**
Ezkurran, 2007ko uztailaren 2an



*Sobera abudo
joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu*

EZKURRAKO GAZTEAK



**Antton
NOBLE MINDEGIA**

*Leitzako Erleta eskolako ikasle,
irakasle, guraso eta langileok
une latz hauetan
familiararen saminarekin
bat egiten dugu*

Ezkurran, 2007ko uztailaren 2an



Mikel GOÑI *Aspeko pilotaria*

ARGAZKIA: JON ALTZUGUREN

DATUAK...

- Bi urteren ondotik, Ordago utzi eta Aspe enpresara itzuli da Mikel Goñi Oronoz-Mugairiko pilotaria. Bi urte eta erdiko kontratua sinatu du Fernando Bidarteren enpresarekin.
- Eibarko Astelena jendez beteta zegoela 'debutatu' zuen ekainaren 24an. Lasa III.a lagun zuela, Eugi eta Laskurainen kontra aritu zen. 22 eta 17 galdu zuen. Huts aunitz egin zituen, baina itxura ona eman zuen.
- Asperekin hasi ahal izateko prestakuntza fisiko gogorra egin behar izan du, eta 18 kilo galdu.

«Aspek badaki ni ongi baldin banago jendea frontoira joanen dela»

Xan HARRIAGUE

Zer erran nahi du zuretzat Asperekin berriz kontratua sinatzeak? Niretzat poz handia da berrito elitean egotea. Pilotari guztien ametsa da Aspe edo Asegarcerekin debutatzea, eta nik berriz egitea lortu dut. Aukera berri hau, bigarren debuta izan da niretzat.

Nolatan etorri da kontratua?

Nire inguruko jendea izan zen Fernando Bidarterengana joan eta bertze aukera bat emateko eskatu zuena. Aspeko zuzendariak proposamena onartu zuen, baina horretarako prestaketa fisiko bat agindu zidan: egunero entrenatzera joateko exijitu, euren aginduak betetzeko eskatu, pisua galdu... Aspeko entrenatzaile baten laguntzarekin, pixkanaka eskatutakoa egitea lortu dut, 18 kilo galdu ditut. Eurek ere badakite ni ongi baldin banago, jendea frontoira joanen dela. Nik eskertzen dut hori, baina eurek, enpresa bezala, badakite hor gantxoa dagoela.

«Udarako partida aunitz paratu dizkirate, eta urtean guttienez 50 partida jokatu beharko ditut. Nik uste baino kontratu hobea sinatu dut»

Nolakoa izan da azken lau hilabeteotan egin duzun prestaketa?

Gehienbat prestaketa fisikoa izan da. Hasierako hilabete eta erdian, lasterka aunitz ibili behar izan nuen, gutti jan, serieak aunitz... Orain pesak egiten ere ari naiz. Frontoian, berriz, orain hilabete eta erdi hasi ginen. Zailena abiadura hartzea izan da niretzat, goi mailan, Aspen, bertzelako abiadura dutelako, pilotak ere zakarraoak dira eta horretara ohitzea izan da zailena. Baina lan handia egin dut fisikoki eta ongi ikusten dut nire burua.

Zein helburu dituzu heldu den urteei begira?

Zuhurtasunez jokatu nahi dut, eta le-

ku gutti dagoen arren, txapelketa nagusietan parte hartzea gustatuko litzaidake. Edozein txapel jantziko nuke gustura. Nafarroako lau 1'erdikoa badut, baina bat aukeratzekotan buruz burukoa irabaztea gustatuko litzaidake. Horixe da pilotari guztien ametsa. Halere, edozein dela ere, gustura hartuko nuke. Poliki-poliki egin nahi ditut gauzak, aitzinera begiratzuz.

Zer moduzkoa da sinatu duzun kontratua?

Nik uste baino hobea izan da. 2009ko abendua bitarteko kontratua egin dut eta gustura nago. Uda honetara begira partida aunitz paratu dizkirate, eta urtean guttienez 50 partida jokatu ditut. Ez dut inongo presarik, bi urte eta erdiko kontratua da, eta lasai-lasai egin nahi ditut gauzak. Baldintzen aldetik, aitzinekoekin konparatuz baxuagoak badira ere, hagitik kontent atera nintzen Eibartik. Proposamen ona egin zidaten eta segidan sinatu nuen.

PILOTA

Laxoa txapelketa final laurdenetan ari da

Doneztebeko lau taldeak, Oizko bat, Iruritako bi eta Arraiozko bat

G. P.

Lehendabiziko fasea bukatu ondotik, Baztan-Errekako XXVIII. laxoa txapelketa finalurrekoretan sartua da. Hasierako ligaxka horretan, A multzoan, Doneztebe A taldea nagusitu zen, eta bere ondotik, Oitz A, Doneztebe C, Irurita A, Oitz B eta Irurita C. Bigarren multzoko buru, berriz, Irurita B izan zen, Arraioz A, Doneztebe B, Doneztebe D, Arraioz B eta Hondarribiaren aitzinetik.

Multzo bakoitzeko lau lehendabizikoak dira orain final laurdenak jokatzen ari direnak: Doneztebe A Doneztebe Dren aurka, Oitz A Doneztebe Bren kontra,



ARTXIBOA

Aurtengo finala Iruritan jokatuko da.

Doneztebe C Arraioz Aren kontra eta Irurita A Irurita Bren kontra. Joan eta etorriko partidak dira, eta dagoeneko jonekoak jokatu direnez, itzulikoak baino ez dira gelditzen. Behin hauek

bukatzean irabazleek finalurreko partidak jokatuko dituzte, eta hasieran errandakoaren arabera, final handia abuztuaren 5ean jokatuko da, Iruritako plazan.

HERRI KIROLAK

Iparraldeko Joku Torneoaren garaipen aunitz gelditu dira eskualdean

G.P.

Uztailaren 1ean Orbaitzetan jokatu zen Iparraldeko Joku Torneoaren hirugarren eta azken jardunaldia, eta orduan erabaki zen sailkapen orokorra ere. Eskualdeko parte-hartze zabala izaki, garaipen aunitz etorri da ingurura. Koxkor biltzen, Orbaitzetan parte harte ez bazuen ere, bi denborarik onenak kontutan hartzen direnez, Fernando Etxegarai beratarrentzat izan zen garaipena. Patxi Irazoki igantziarra eta Iñigo Lasaga etxalartarra, laugarren eta bosgarren gelditu ziren, hurrenez hurren. Ingude altxatzen, Xabi Sein igantziarrak izan zen irabazle, iaz bezala, Carlos Seinen aitzinetik. Lazaro Bujan leitzarra hirugarren gelditu zen, eta Igor Lasaga beratarra, berriz, laugarren. Harri altxatzen Leitza geltitu zen txapela, Josetxo Urrutiarentza izan zen. Sunbillako Unai Bertiz, berriz, hirugarren postuan gelditu zen. Lasto altxatzen ere Xabi Sein igantziarra izan zen garaile, Iñaki Bereau, Oskar Telletxea eta Carlos Sein herritarren aitzinetik. Zakularien lasterketan ere Igantzira joan zen garaipena, Iñaki Bereau, Oskar Telletxea eta Eneko Mitxelenak osatutako hirukotearentzat, hain zuzen. Azkenik, txingak eramaten, Julen Txoperena igantziarrak irabazi zuen, Oskar Telletxea herritar eta iazko txapeldunaren aitzinetik. Josetxo Urrutia leitzarra seigarren sailkatu zen, eta Unai Bertiz sunbildarra zazpigarren.

TXIRRINDULARITZA

'La Miguel Indurain' uztailaren 29an egingen da Beran

Bi ibilbide izanen dira aukeran: 186 kilometrokoa eta 113koa

G. P.

Uztailaren 29an egingen da *La Miguel Indurain* XVI. edizioa. 8:30ean hasita, txirrindulariek bi ibilbide egiteko aukera izanen dute: luzea 186 kilometro-

koa, eta laburra 113koa. Izena emateko hainbat bide zabaldu dituzte: Internetez, www.laindurain.com helbidean, uztailaren 24a baino lehen, edo uztailaren 28an eta 29an kiroldagian.



ARGAZKIA: TELLETXEA

Antolatzaileak eta Miguel Indurain bera aurkezpen ekitaldian.

Bezperan 15:00etatik 21:00etara eta egun berean 6:30etik 8:00etara. Federatuek 33 euro

ordaindu beharko dituzte; federatu gabeeek, berriz, 28 euro. Lasterketa nazioartekoa

da ekainaren 28an aurkeztu zuten antolatzaileek. Miguel Indurain bera ere han izan zen.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Ekainaren 22tik uztailearen 14ra, Juan Gorritiren eskultura erakusketa Arizkunenean. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.

IKASTAROK

BERA

Uztailearen 14an eta 15ean, eta 21ean eta 22an patinaje-hastapen ikastaroa, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko deitu 610 974262ra.

Abuztuaren 2tik 26ra hiru clown ikastaro egingen dira Alkebera landetxean. Ramon Albisturrek emanen ditu eta 45 ordukoak izanen dira.

ELIZONDO

Abuztuaren 3tik 31ra, Baztango paisaiei buruzko ikastaroa. Astelehen, asteazken eta ortziraletan. Irakasleak J. M^o Apezetxea eta T. Sobrino. Prezioa 90 euro. Izen emateko epea zabalik dago Arizkunenean.

SENPERE

Uztailean eta abuztuan, Landetako behiei buruzko ikastaroa, Senpereko Gazteluan, 21:30ean.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Uztailearen 21ean, Sunbilla-Goizueta mendi ateraldia antolatu du Ulibeltzak mendi taldeak.

Uztailearen 28an, Urbasa-Urederrera ateraldia, Ulibeltzak mendi taldeak antolatuta.

TELEBISTAKO TXOKOA



HELDU DEN IGANDEAN ELIZONDON

Baztandarren Biltzarra Ttipi-Ttapa telebistan

Doneztebeko San Pedro bestekin ekin zioten telebistako lankideek aurtengo *Bestaz besta* saioari. Ondotik, Lesakako Sanferminen txanda ailegatu da. Urtero bezala, egunez egun, Doneztebeko eta Lesakako besta-giroa pantaila tikian bildu da, Goizalde eta Xan aurkezleen eta Eburne, Jon eta Aitziber kamara operadoreen eskutik. Herrietako besteei tarte bat utziz, heldu den igandean, uztaileak 22, Elizondon egingen den Baztandarren Biltzarren irudiak ere emitituko dira **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**. Iruridirik ikusgarri eta bixienak eta elkarrizketarik bixienak telebistan izanen dira. Orgen

desfilea, eskulan erakusketa, herri bazkaria... Baztandarren eta kanpokoen besta haundi honen giroa gure etxeetara ekarriko digute.

BESTETAKO DVD ETA BIDEOAK SALGAI

Urtero bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** bestetako DVD eta bideoak prestatu ditu. Doneztebeko San Pedroetako eta Lesakako Sanferminetako saio berexiak ikusterik izan ez duenak, edo ikusita ere, etxean gorde nahi duenak, oraindik badu aukera. Horretarako, **TTIPI-TTAPA**ko 948 635458 telefono-ra deitu behar da.

JOLASAK



KAO: sumendiko sekretua BIDEOJOKOA

ELHUYAR FUNDAZIOA, 2007

Elhuyar Fundazioaren ekimenez, *KAO: sumendiko sekretua* izeneko ordengailurako bideojokoaren hiru ale zozketatuko ditu Ttipi-Ttapa. Elhuyar Fundazioak kaleratu du, eta hamar urtetik goitiko gaztetxoentzako dago pentsatua, eta 3Dko teknologia erabiltzen duen aisialdirako joko da, euskaraz egingina. Kao izeneko kangurua da protagonista, eta hamar eremutan lagundu behar dio jokalaria. Bidaia luze baten ostean, uhartean duen etxera itzuli da Kao, atseden hartzera, baina ezin: bere lagun Tximista sumendi baten barrura erori da eta hor bizi diren labazko munstroak esnatu ditu. Munstroak garaitzea izanen da Kao-ren helburua. Lasterketak, puzzleak, motor-dun txalupetan ibilaldiak, airean borrokak... Era guztietako abenturaz gozatzeko aukera!

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Ekainaren 22tik ekainaren 29ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 26,00 € (=)

Zerri gizena
1,240 € kiloak. (0,020)

Zerramak:
0,400 € Kg/bizirik. (0,010)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal Extra 3,71 (=)

1.koa 3,40 (=)
2.koa 3,14(-0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal Extra 3,83 (=)

1.koa 3,52 (=)
2.koa 3,23 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 170,00 (-20,00)
idixkoak 242,00 (-7,50)

Aretze nabarrak:
urruxak 130,00 (-20,00)
idixkoak 160,00 (-7,50)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,95/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,40
8-10 kilokoak: 4,80/5,50

JAKIN BEHARREKOAK

Butano gasaren azterketa faltsuak egiten ari direla salatu du Irachek

Nafarroako Gobernuaren izenean datozela erraten omen dute

Butano gasaren instalazioak berrikustera datozela erran eta kobratu. Lehenago ere horrelako kasuak gertatu izan dira, eta orain berriro ere enpresa bat iruzur egiten omen dabil Nafarroan. Halaxe salatu du Irache Kontsumitzaileen Elkarteak. Nafarroako Gobernuaren izenean datozela erranez, enpresa bat gas instalazioan azterketa faltsuak egiten ari omen da, batez ere Nafarroa erdialdean. Gainera, inolako zerbitzurik eskatu gabe agertzen omen dira etxean, eta 90 euro kobratu.

Iracheren hitzetan, adinekoengana hurbiltzen dira gehienetan, eta hauek etxeko atea zabaltzeko inongo oztoporik ez omen diete paratzen. Kasu batean, adibidez, etxera sartu eta alda-



Gas-butanoen azterketak borts urtetik behin egin behar dira.

keta pare bat egin omen zituzten, hala nola, gas-butanoaren hodia eta gas-bonbonaren burua aldatu. Eta ondotik, eskura 90 euro inguru ordaintzeko eskatu. Horrez gain, etorkizunera begira azterketak euren egiteko, mantentzen kontratu bat egiteko aukera ere eskaini zieten.


Egoera honetan, Irachek, azterketak

egitera datozenei identifikazioa eskatzeko aholkatu du, eta Nafarroako Gobernuaren izenean heldu direla erraten badute ere, hala adierazten duen agiriak eskatzeko. Enpresako zerbitzuak kontratatzeke, aitzinetik aurrekontu zehaztu bat eskatzearen beharra ere azpimarratu du Irachek, mantentzen gastu eta

baldintza guztiak argituz. Azkenik, faktura bat ere bai.

Gas-butanoaren azterketak borts urtetik behin egin behar dira, eta horretarako bermea duen enpresak behar diren agiriak aurkeztu behar ditu. Gisa berean, aipatzekoa da, iraungitze-data duten instalazio guztiak balioa galdu baino lehen ordezkatu behar direla.

LIBURUAK



Haize hegoaren aroak

Luis GARDE

PAMIELA, 2007

2004an plazaratu zuen Luis Gardek bere lehen poema-liburua, *Oihan nabarra*. *Haize hegoaren aroak* bere bigarrena da, eta bere hitzetan, «*batasun sendo*» bat ematen saiatu da: «*Badago hari fin bat, osatu gabeko puzzle bat ikusten dut: oroimen historikoa (...). Geure gerren poemak dira, Karlstadtak, 36koa, egungo gatazka, etorkizunekoak... baina beti geureak*». «*Egungo alderat/gotorlekuko harrisiak gartzen dira/xori hotz*

pausatu batek behatzen baditu./Beren izenak azkazalez izkiriatur/ziegez jabetu ziren izalak./Jasota daude ahanzturaren/erregistro kareztatuetan./Txolarrek sastraka itsuan mokoka/harriak irauarazten dituzte./Honelako egungo sententia dardaratietan/Ezkabako harrisiak dirakite/xori gori batek begietaritzen baditu». Donazteben bizi den iruñear honen, hirugarren liburua ere kaleratzekoa du aurten: *Urtzaiaren beharra*.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

BESTAK

ARANO

Uztailaren 25etik 29ra, Santiago bestak. Xehetasunak 19. orrialdean.

ELGORRIAGA

Uztailaren 20tik 25era, Santiago bestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

ELIZONDO

Uztailaren 24tik 25era Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

ITUREN

Uztailaren 13tik 16ra, herriko bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

SEMPERE

Uztailaren 13tik 15era, Amotzeko bestak.

OSPAKIZUNAK

ELIZONDO

Uztailaren 22an, Baztandarren Biltzarra.

ZINEA

ELIZONDO

Uztailaren 17an, *Cerdos Salvajes* filma ikusgai, 22:00etan Merkatu Plazan.
Uztailaren 19an, Piratas del Caribe 3: *En el fin del mundo* ikusgai, 10:00etan Merkatu Plazan.

HAURRENTZAKO AISIALDIA

ERRATZU

Uztailaren 16tik 27ra, udako jostaldiak, 10:00etatik 13:00etara.

ELIZONDO

Uztailaren 30tik abuztuaren 10era, udako jostaldiak, 10:00etatik 13:00etara.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8€ ordaindu behar da. Ttipi-Ttapa telebistan eta www.ttipi.net-en ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.

- 2. eskuko eta promozio berriko pisuak salgai.

BERA.

- 2. eskuko pisuak salgai.
- Etxea salgai.
- Ostatua salgai.

DONEZTEBE.

- 2. eskuko pisu eta apartamentua salgai.
- Promozio berriko 2 duplex salgai.

NARBARTE.

- 2. eskuko pisuak salgai.

DONEZTEBE INGURUAN.

- Baserriak, borda eta lur eremu eraikigarriak salgai.

SUNBILLA.

- Etxeak salgai.

BAZTAN-BIDASOA.

- Bordak, baserriak, etxeak, pisuak, apartamentuak eta terenoak salgai.

INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LESAKA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lur eremuarekin eta lizentziarik salgai. Lur eremu urbanizatua ura, argia, ur zikinaren putzua... ☎678 526091.



LEITZA. Pisuak salgai Patxi Arrazola kalean, 2. solairuan. 3 gela, bainugela eta egongela. Bajerarekin edo gabe. ☎948 510180.

ELIZONDO. Berritutako pisua salgai. ☎ 699 014378.

LESAKA. Bittiria karrikan pi-

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurraekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

sua salgai. ☎ 617 559141.

BULDAIN INMOBILIARIA

Leitzan:
Pisu berriak salgai.

Leitzan:
110m²ko pisua salgai,
15m²ko tratelekuarekin
27.000.000pezetan.

Amazabal, 37 behea
LEITZA
Tfn: 948 510 534

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BERA. Pisu errentan ematen da Eztegaran, moleztatua. ☎ 948 630270 (eguerdian eta gauean).

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BAZTAN. Etxea edo baserria errentan hartu nahi da. Etxea zaindu eta konponketak egiteko prest, alokairu merkearen truke. ☎619 605939.

GARAJEAK/LOKALAK



Baztango

promoción inmobiliaria

Etxebizitza errehabilitazioa
Tasazio eta balorazioa

Ondasunen salmenta eta alokairu
Lurzoruen gestioa

Tel/Fax 948 630 552 Kanitonberri karrika, 4
info@baztango.com 31780 Bera. Navarra

107 Saldu

IRURITA. Herri sarreran 40 m²ko lokala salgai. ☎68 607546 / 637 993939.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzen da, MINP proiektuarekin eta erraztasunekin. ☎ 699 361194.

LEITZA. Bikoitz taberna abuztuaren 10etik 15era, Leitzako pestetan, alokatzen da. ☎ 948 510072.

ZERBITZUAK

205 Zurginak



ZERBITZUAK

206 Mendi lanak

LANA

301 Eskariak

Bi pertsona eskaintzen dira edozein lanetan aritze-ko. ☎680 295879.

Leitzako emakume bat adinekoak zaintzeko edo- ta etxeko lanak egiteko es-



kaintzen da. ☎619 829289.

LANA

302 Eskaintzak

LESAKA. Atxaspi ostatuan asteburuetan aritzeko zerbitzaria behar da, euskaraz dakiena. ☎948 637536.

BERA. Larungo benta batean lan egiteko frantses pixka bat dakiten neska eta mutila behar dira. ☎948 631100 (goizez)/ 948 630794 (gauetz).

ARIZKUN. Betiko lantegian langileak behar dira. ☎948 453259.

BERA. Pertsona behar da etxetresna elektrikoaren entregak egin eta martxan paratzeko. Eskatzen da: elektrizitatearen inguruko ezagutza, gidatzeko baimena, euskaraz jakitea —ezinbertzekoa— eta frantsesez jakitea baloratuko da. Bi-



txokoberri
Aluminioan espezializatuak

- Aroztegi Metalikoa (lehoak, atek, barandak...)
- Parket

Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 661 924

dali curriculuma Bortzirriak, Bidasoa 45. behe. 31780 Bera helbidera edo 948 630377 telefonora deitu.

BERA. Jatetxe batean jendea behar da garbiketa lanak egiteko. ☎617 723475.

ETXALAR. Etxalarko Benetetan ostatuan lan egiteko zerbitzaria behar da udarako. ☎948 635000.

BERA. Ostatu batean uztailea eta abuztuan lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎605 864355.

Bigarren mailako ofiziala behar da urbanizazioetan lan egiteko. ☎616 513491.

ETXALAR. Etxalarko benetetan abuztuan garbiketa lanak egiteko neska edo emakume euskalduna behar da. ☎948 635000.

MOTORRA 501 Salerosketak

Citroen C5 HDI 110 salgai, extra guztiak. 2005eko uztailekoa. 7.000 km. Prezioa adostuko da. ☎679

087082.

Seat Ibiza 1.0 diesela salgai, 3 atekoa. NA 4285 AX matrikula. ☎618 889953.

Peugeot Partner Portaventura HDI 90 salgai, gibelean bi ate korrederekin. Bortz urte, egoera hagitz onean. ☎661 767398.

MOTORRA 502 Tailerrak

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIETAN ESKAINITZA ZABALA (6-12 hilabetekoak)

Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARREN ESKUKOAK

Renault 19 Chamade, Kangoo 1.9 D (gibelesko alde itxia), Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV, Citroen ZX 1.9 TD, Opel Vectra 2.0 DTI 100 CV

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Collie arrazako txakur ku-



GANIX
TAILERRA

Itxialararen mekanika eta elektrizitateak

BERA FIAT zerbitzua

Nafarroa, 1 • Tel: 948 630 667

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Galloper Super Exceed 3 ate, Montero IO 5 ate, Golf 1.9 TDI, Ibiza eta Almera. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

meak salgai. ☎630 980789.

DENETARIK 702 Salerosketak

Bateria elektronikoa salgai, aukiarekin, 300 euro (Millenium). ☎636 880115.

Ping-pong mahaia salgai. ☎619 308060.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

Gitarrista, **baxujole** eta **baterijole** bila dabil Radio He- ad, U2, The Who, Nirvana, Metalica... musika es- tiloko taldea osatzeko. ☎948 599105/627086266.

Gure Txokoa futbol talde- ak **entrenatzailea** eta **entrenatzaile laguntzaileak** behar ditu gazteen mailan aritzeko. Interesatuak Luis Irazokirekin harremanetan jarri edo elkarteko zuzen- daritza batzordeari jakinarazi.

DONOSTIA. 3 ikasle pisu bila gabiltza Euskal Herri- ko Unibertsitatearen ingur- ruan, Antiguon. Presazkoa da. ☎680187344.



ttipi
ttipa

☎ (0034) 948 635458




BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
31780 ETXALAR

LANPOSTU DEIALDIA

Autonomia pertsonala sustatu eta murreratasuna duten pertsonen laguntzeko programarako Gizarte Langilea, oposizio-lehiaketa bidez, lan kontratu finkoarekin eta lanaldi er- dian.

2007ko ekainaren 29ko 80. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.



ttipi
TXARTELA rekin
Minifitza ritua eta deskontuak

DESKONTUAK

•AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

BERAUTO Bera %5 Errekarbitan
ZALAIN MOTOR Bera %5 Errekarbitan
KATEA BIKE Bera %5 Korporaketan
DATUCELAY Elkizondo %15 Bateria eta amortiguadorekin
SANSIRENA Elkizondo %10 Olio-aldaketetan

•AUTO ESKOLAK

SEMPER Bera %10 Matrikulan

•ARGAZKI DENDAK

GOIKO Bera %10 Kasete, amebelatz...

AYLA Bera %10 Errebelatza, NWargaketa...

MENA Doneztebe %10 Errebelatza

MENA Elkizondo %10 Errebelatza

ZALDUA Doneztebe %10 Produktuetan

ZALDUA Elkizondo %10 Produktuetan

•ARROPA DENDAK

ALUSTIZA Doneztebe %10

EDURNE Bera %5 (30 tk gosi, eskura ord.)

J.J. PICABEA Doneztebe %10 Gaitza-marka batzuetan ez

KATTALINGORRI Elkizondo %10

IPINGI Elkizondo %10 (30 E tk gosi)

FANTXIKE Elkizondo %10 (30 E tk gosi)

•BITXIDENDAK

ETXARTE Lesaka %10 Bixietan

•ETXETRESNEN DENDAK

ALTZURI Lesaka %5 Etxebetan

•ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA Doneztebe %5 Kosmetikari (30 E tk gosi)

..... %10 Erregai arrikuletan eta kosmetikan. Merkesidetan ez

eskatu zure txartela abantaila aunitz
948 635 458



ZALDUBI
SUKALDEKO MOBLEAK

Martin Lizasoain Adarza

Etxetresnak · Armairuak
Komunak · Manparak

Tel: 948 580 562 · Faxa: 948 581 859
Zaldubia Industrialdea · 31730 IRURITA

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Gure etxeko **TTATTARRENAK** 2 urte beteko dituzte uztailaren 15ean. Zorionak etxeko partetik, batez ere, atxa, ama, Beñat eta Mikelen partetik. 2 muxu



Elko-Nevadako **MITCHELL OWLSLEY IGOAK** 9 urte beteko dituzte uztailaren 23an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



NAHIA SANCHEZ ARAKUES lesakarrak 5 urte beteko dituzte uztailaren 13an. Zorionak aita, ama eta Eloiren partetik.



IBAN OLAETXEA ETXEBERRIA lesakarrak abuztuaren 8an 2 urte beteko dituzte. Zorionak Elizondoko familiaren partetik, bereziki aitaxi eta amatxiren partetik.



IBAN OLAETXEA ETXEBERRIAK abuztuaren 8an 2 urte beteko dituzte. Zorionak etxeko txikiari. Beti bezain alaitu jarrai dezan, bi muxu. Ataxko eta amatxo.




OLAIA MENDIBURU TELLETXEA elizondarrak 4 urte bete dituzte uztailaren 2an. Zorionak familia guztiaren partetik, eta bereziki Iraitzen partetik.



Almandozko **NEREA SARRATEAK** 5 urte bete dituzte uztailaren 8an. Muxu aunitz printzesita familia guztiaren partetik, bereziki Lorea, Maria eta Xabiren partetik.



AIERT, ALAZNE eta NAROA IRIGOIEN anai-arrebek eta beren lehengusina **NEREAK** 4, 1 eta 10 urte beteko dituzte uztailaren 1ean, 21ean eta 12an. Zorionak eta muxu haundi bana familia osoaren partetik.



CARLOS PACHECO RETEGI. Zorionak pandero!!! Ane, Ainara eta amatxoren partetik.



NEREA MINDEGIA ELETAK uztailaren 2an urteak bete dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat atxa, ama, Maider eta Goioeren partetik.



AIERT IRIGOIEN ETXARTE etxalartarrak 4 urte bete dituzte uztailaren 1ean. Zorionak eta lau muxu haundi etxeko partetik.



Aunitz urtez **ATAUTXI** eta bere hiru **LOBATXORI**, uztailaren 1ean, 8an eta 21an urteak beteko dituztelako. Zorionak eta muxu haundi bat baserriko familiaren partetik.




Iruñeko KEMEN ETXEBERRIA GARRAUSEK 2 urte beteko dituzte uztailaren 23an. Zorionak Arzallus eta Toñiren partetik. Muxu bero bat gure **PUTTITTO...**



Iruñeko KEMEN ETXEBERRIA GARRAUS gure etxeko altxorrek 2 urte beteko dituzte uztailaren 23an. Zorionak itiki, muxu pila aitaxi eta amatxiren partetik.



Itxeko **SORGINAK** 9 urte beteko dituzte uztailaren 6an. Zorionak etxeko partetik, eta bereziki Maialenen partetik. 9 muxu!!!



ALAITZ LOIARTE OTXANDORENA irundarrak urteak beteko dituzte uztailaren 23an. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



IKER LOIARTE OTXANDORENA zubietarrak 3 urte beteko dituzte uztailaren 21ean. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.




XABIER eta BEÑAT MIGELTORENA MARITXALARREK uztailaren 17an eta 20an 3 eta 8 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bana familia guztiaren partetik.



Doneztebeko **IORITZ** eta bere **AMATXIK**, 3 eta ... urte beteko dituzte uztailaren 12an eta abuztuaren 2an. Zorionak gure bi txotxolori familiaren partetik. Segi horrela!!!



ANTTON IPARRAGIRRE ITURZAETA pirulerok 2 urte bete dituzte uztailaren 2an. Aunitz urtez eta muxu aunitz Olatz eta Enekoren partetik.



ANE BERASAIN GOIAK uztailaren 25ean 10 urte beteko dituzte. Zorionak Kattalin, Amaia, amoña, amatxi eta familia guztiaren partetik.



MADDI LASA GARCIAK 13 urte beteko dituzte uztailaren 15ean. Zorionak Ane eta Kattalinen partetik.



MATHEUS SUSPERREGIK uztailaren 23an 15 urte beteko dituzte. Zorionak Rodrigo, atxa, Xebita eta Beñadoren partetik.

ttipi-txartela 2007



urtean
40€

**39 komertzioetan
deskontuak**

aldizkaria doan

deitu eta egin zurea!! 948 635 458



AMAIYR

vegasa

Modelo berriak:
rustikoak • modernoak • praktikoak
Entzimerak: silestone • granito • corian ...
Elektrogailu nazionalak eta alemanak

BISITA EZAZU

Rosa Seminario 13 • Tel.: 948 450 400 • DONEZTEBE



Muebles
Telletxea

Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE • 948 450 258 • 948 451 811
ESTILO ETA KOLORE EZBERDINETAN AUKERA ZABALA





28 kanala
Tolosaldia



Oizmendi telebista
Busturialdia, Lea-artibel



Golena telebista
Debaqolena



Ttipi-ttapa telebista
Bortziriak, Malleroka



Goleiri telebista
Goleiri



Xaloa telebista
Baztan, Malleroka



Zarauzko telebista
Urola Kosta

elkarlanaren emaitza



TOKIKO

Euskarazko toki
telebisten elkarte